

# HOSTAL MISTERIOTSUA

Aimar amorrus beteta, ezin zuen negarrari eutsi eta behin eta berriro galdetzen zion bere buruari, zertarako ikertu dut kasu hau? Zertarako begiratu nuen 33. logelan? Zergatik pertsona hori? Zergatik? Zertarako? Zergatiiiiiiiiik? Momentu horretan, Aimar, lur jota zegoen, ezin zuen ezertan pentsatu, begiak ixten zituenean tximistak eta mounstroak etortzen zitzaizkion burura.

Hobeto... hasieratik kontatuko dugu dena. Aimar 13 urteko ume bat zen, errubioa eta oso altua eta Baionan bizi zen bere amarekin. Aimar txikia zenean bere aita hil egin zen eta handik aurrera bere ama detektibe egin zen. Lan horrekin diru nahikoa irabazten zuen familia mantentzeko. Egun batean, Aimarren ama gaixorik jarri zen eta kasu hori oso inportantea zenez eta dirua behar zutenez Aimar erabaki zuen bera bakarrik argituko zuela kasua, baina, ez zion bere amari ezer esan Aimarrek bazekielako bere amak ez ziola utziko. Momentu horretan, telefonoa entzun zen. Amak hartu behar zuen telefonoa baina ixante batean Aimar telefonoa eskutik kendu zion berak zekielako kasuaren inguruan izango zela, orduan, hitz egiten hasi zen

- Hemen Aimar Gonzalez, nor da?
- Martin naiz MARTINTXO hostaletik deitzen dut, nire ostalean lapurreta batzuk egon dira eta uste dut detektibea zarela, ezta?
- Bai, bai ni detektibea naiz... Bueno ze egunetan nahi duzu zure hostalera joatea?
- Ondo iruditzen bazaizu bihar bostetan geratzen ahal gara?
- Ondo, bihar arte.

Aimar beldurra zuen, bere ama harrapatzen bazuen, bere logelan 10 urte gehiago geratu beharko zen, baina dena ondo ateratzen bazen, bere amak besarkada handi bat emango zion, gainera Aimar asko maite zuen bere ama eta berarengatik edozer egingo zuen. Hurrengo egunean, libreta, boligrafoa eta grabatzailea hartu eta hostalerantz abiatu zen. Hostala oso handia eta barrutik oso iluna zen eta Aimarri oso misterioa iruditu zitzaion. Berehala jarri zen Martinekin lapurketen inguruan hitz egiten:

- Noiz eta non egin zen azkeneko lapurreta?- galdetu zuen Aimarrek
- Azkeneko lapurreta 32. logelan izan zen, herenegun gaueko bederatzietan gertatu zen.
- Eta zer lapurtu zuten?
- Kutxa gotor bat lapurtu zuten
- Azkeneko galdera, logelaren ze partean zegoen kutxa gotorra?
- Gotor kutxa apal oso altu batean zegoen, normalean, jendeak aurkiak edo banketeak eskatzen dizkigu gauzak or gordetzeko, orduan, lapurra oso altua da.
- Bale eskerrik asko- esan zion Aimarrek pozik.

Aimarrek erabaki zuen bakarrik hango langileei galdekatuko ziela. Ostaletik buelta batzuk ematen ari zela, sukaldea aurkitu zuen eta sukaldaria galdekatzea okurritu zitzaion:

- Kaixo nik Aimar naiz zein da zure izena?
- Nire izena David da baina zer egiten duzu zuk hemen?
- Detektibea naiz eta galdera batzuk egingo dizkizut, zer egiten ari zinen herenegun gaueko bederatzietan?

- Beti bezala, hurrengo egunerako gosaria prestatzen ari nintzen
- Bale, eskerrik asko galdera erantzuteagatik  
Aimar bazekien David ez zela lapurketetan zebilena oso langilea zenez ez zuen denborarik izango. Beraz hori ikusita beste buelta bat eman zuen eta harreragaile bat aurkitu zuen.
- Kaixo nik Aimar naiz zein da zure izena?
- Nire izena...haaaaaaaaaaaa!!!- garrasi egin zuen harreragaileak
- Zer gertatzen da?- esan zuen Aimar
- Armiarma bat!!!

Aimar begiratzera joan zen, eta armiarma txiki-txiki bat zen, segituan aimar agur esan eta joan egin zen, bazekielako bera ez zela lapurra ze lapurra izateko ausartagoa izan behar da. Bueltaka eta bueltaka jarraitu zuen, garbitzaile bat topatu zuen arte:

- Kaixo nik Aimar naiz zein da zure izena?
- Nire izena Rosa da, zergatik galdetzen didazu ori?
- Detektibea naiz eta galdera batzuk egingo dizkizut, zer egiten ari zinen herenegun gaueko bederatzietan?
- Eeeee gaueko bederatzietan, herenegun, mmm ezer- esan zuen Rosak urduri
- Zerbait egiten ariko zinen ezta?- galdetu zuen Aimarrek ia-ia konbentzitura bera izan zela
- Ez nuen ezer egin, seguru nago, eta orain joan egin behar naiz- esan zuen lehen baino urduriago.

Aimar seguru zegoen Rosa zela lapurretan ari zena baina konturatu egin zen Rosak ezin zuela apalategian zegoen kaxa hartu ez zelako hain handia. Momentu horretan, Aimarren burua txurian zegoen, ez zekien nor ote izango zen, horregatik denok batera elkarrizketa bat egitea erabaki zuen. Denok han zeuden Martin, sukaldaria, harreratzailea eta garbitzailea eta Aimar hitz egiten hasi behar zenean soinu oso fuerte bat entzun zen, baina, pertsona guztiak jangelan zeuden, orduan zer zen soinu hori? Bostak soinua entzun zuten lekura abiatu ziren 33. logelatik zetorren soinua. Atea ireki eta... Aimarren ama zen lapurretan ari zena!!! Gaixorik zegoela esaten zuen inork berataz ez susmatzeko. Aimar amorrutik beteta, ezin zuen negarrari eutsi eta behin eta berriro galdetzen zion bere buruari, zertarako ikertu dut kasu hau? Zertarako begiratu nuen 33. logelan? Zergatik pertsona hori? Zergatik? Zertarako? Zergatiiiiiiiiik? Momentu horretan, Aimar, lur jota zegoen, ezin zuen ezertan pentsatu, begiak ixten zituen tximistak eta mounstroak etortzen zitzaizkion burura.

Amari eskuburdinak jartzen zizkioten bitartean Aimar negarrez jarraitzen zuen, ezin zuen sinestu. Hortik aurrera bere amonarekin geratu zen bizitzera eta bere ama kartzelan geratu zen betirako.